

Juanita Ibaibarriaga

Juanita Ibaibarriaga Ermuan jaio zen 1934. urtean, Iturriaganeko etxean, eta berari eta bere senideei Pelaionekuak esaten zieten.

Ezkondutako eta lau seme-alaba izan zituen (bata txikitako hil zitzaion). Haiexek hazi eta heztera dedikatu zen buru belarri: inguruan baina beti loba aldra itzela, ze 'tia Juanita' berezia zen.

Autodidakta eta irakurle amorratua, bere inguruan gertatzen zenaz jantzita egotea gustatzen zitzaion pertsona irekia zen, irizpide zabalekoa, dena eta denekin errespetatzen ohitua.

Mendia zen bere aparteko beste zaletasuna. Egunero egiten zuen bere osteratxoak eta handik bueltan aldean beti ekartzen zuen zerbait, bere amari entzunda zion eta "Euskal Herriko mendiak oso aberatsak dira"; berbena-belarrak edo beheakoa kentzeko landareren bat edo tentsioa jaisteko asun txortaren bat... Ondo ezagutzen zituen denak, euren izen eta ezaugarri guztiekin.

Alaia eta berba gutxikoa, beti zeukan minaren puntan erantzun edo kontseilurik egokiena. Atsegina zen berarekin berba egitea, ze hemendik ez bazen, handik agertzen zuen bere bizitzaren jakituria, bere filosofia eta gauzak ikusteko modua. Gauzak datozen moduan lasai hartzekoa, "konponduko don neska!" zen bere esaldietako bat.

Beste aita eta amarekin askorekin batera Ermuko familia elkartearekin borrokatu zuen eta ikastola aurrera ateratzeko.

Bere seme-alaba etxerako lanak lagunduz, euskaraz irakurtzera eta idaztera zaletu zen eta haiek kokortu zirenean, lan sozialak egiten hasi zen.

Behargin fin eta nekazina, herriko Euskal Birusa Kultur elkartearen sorrera konpartitu zuen beste pertsona batzuekin, gogor eta lan eginez bertako hizkuntza, ohiturak eta abestien berreskurapenean. Drogeteniturrri herri aldirikariko hasierako zenbakietan kolaboratzaile moduan agertzen da.

Juanita 1992an hil zen, 58 urte zituela, adorerik handienaz, gaixotasun mingarri bati aurre egin ostean.

Etxekoandre arrunt eta apala izan zen, Ermuko beste edozein andrazko modura, estimatua, bere ingurukoek maitatua, kultua eta besteentzako beharra egiteko zein bizirik mantendu behar zenari eusteko astia atera zuena.



ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



XXI.

Juanita Ibaibarriaga

LITERATUR ETA ERREPORTAJE

LEHIAKETA 2014

Ermuko gazte eta helduen artean komunikazio idatzia euskaraz zuzen ez ezik txukun eta egoki ere egiteko gaitasuna bultzatzea da sari honen helburua.

Parte hartzea

Adin araberako bi modalitate izango dira:

- Lehen modalitatea: Lehen Hezkuntza 3. mailatik 6. mailara arteko ikasleei eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleei dagokiena.
- Bigarren modalitatea: Gainontzeko ikasle guztiei eta herritarrei dagokiena.

Gaia

- Lehen modalitatean gaia librea da eta parte hartzaileek ipuin edo narrazio bat aurkeztuko dute.
- Bigarren modalitatean, berriz, parte hartzaileek erreportaje bat osatuko dute. barne har ditzaketelarik elkar-rrizketak, aipamenak, dokumentuak, edo interesgarri-tzat jotzen den edozein material.
 - ▶ Gaia: gertakari bati edo pertsonaia bati buruzkoa izan beharko du erreportajeak. Hori bai, edozein gairitakoa eta edozein alorretakoa izan daiteke, baina beti ere Ermua herria edota ermuarrekin zerikusia duena.
 - ▶ Erreportajea 2 argazki edota marrazkiz osaturik egon behar da.
 - ▶ Lanaren luzerak 4.600 eta 5.600 karaktere bitartekoa izan beharko du.
 - ▶ Erreportajearen egilea, pertsona bakarra edo taldea izan daiteke, eta bakoitzak nahi adina erreportaje aurkez dezake.

Aurkezteko erak

Emailaz. euskara@udalermua.net. Helbidera mezu bat bidaliko da eta honen gaian parte hartu nahi den modalitatea (lehen edo bigarrena) zehaztuko da. Mezuak bi fitxategi izango ditu erantsirik: batean lan bera egilearen ezizenarekin; eta beste artxibo batean egilearen datuak (izen-abizenak, helbidea, telefonoa, NAN zenbakia, parte hartzen den modalitatea, kurtsoa, lanaren izenburua eta ezizena)

Korreoa arruntez. Bi gutun azal erabili beharko dira: gutunazal txiki batean egilearen datuak sartuko dira (izen-abizenak, helbidea, telefonoa, NAN zenbakia, parte hartzen den modalitatea, lanaren izenburua eta ezizena). Gutunazal txiki

hori eta lana bera beste gutunazal handi barruan sartuko dira eta horrela bidaliko da ondoko helbideetara:

Ikastetxeen bitartez aurkezten diren lanak ikastetxean bertan entregatuko dira, oinarriekin batera banatutako euskarriak erabiliz.

Ermuko Udala Lobiano Kulturgunea Goienkale 10 48260 Ermua	Ermuko Udala Euskara Saila Konbentukoa, 5 48260 Ermua
--	--

Aurkezteko epea

Lanak aurkezteko azken eguna 2014ko azaroaren 6a, osteguna, izango da.

Epaimahaia

Ermuko Udaleko Euskara Sailak izendatuko du.

Argitaratzeko eskubideak

Saritutako lan guztiak Ermuko Udalaren jabetzara pasako dira eta ohiko bitartekoen bidez zein Ermuko Drogeteniturri herri aldizkarian argitaratzeko eskubidea gordetzen du bere gain.

Jatorrizkoak itzultzea

Autoreei ez zaizkie lan orijinalak itzuliko epaimahaiaren erabakia ezagutarazi eta hamabost egunen buruan espresuki hala eskatzen ez badute eta jasotzera ez badatoz. Jaso ezean lanak Udalaren esku geldituko dira, egileak lanarekiko eskubideak galduz.

Adostasuna

Partaideek oinarri hauetan batutakoak onartuko dituzte, gorabeherarik sortuz gero Ermuko Udalak hartuko du erabakia, epaimahaiaren txostena jaso eta gero.



Sariak

- Lehen modalitatea. Ikasturte bakoitzeko 40 euroko erosketa saria emango da, Ermuko Merkatarien Elkarteko dendetan kanjeatu ahalko dena.
- Bigarren modalitatea, 360 euro.

Sariak ematea

2014ko abenduaren 3an, astezkena.

Baloratzeko irizpideak

Saridunak aukeratzeko orduan gaiaren originaltasuna, erakargarritasuna, ulergarritasuna, edukien ekarpena, idazkera... kontuan hartuko da.